3.– Cambios en el capital corriente.			
a) Existencias (+/-).			
b) Deudores y otras cuentas a cobrar (+/-).			
c) Otros activos corrientes (+/-).			
d) Acreedores y otras cuentas a pagar (+/-).			
e) Otros pasivos corrientes (+/-).			
f) Otros activos y pasivos no corrientes (+/-).			
4.– Otros flujos de efectivo de las actividades de explotación.			
a) Pagos de intereses (-).			
b) Cobros de dividendos (+).			
c) Cobros de intereses (+).			
d) Cobros (pagos) por impuesto sobre beneficios (+/-).			
e) Otros pagos (cobros) (-/+)			
5.– Flujos de efectivo de las actividades de explotación (+/-1+/-2+/-3+/-4)			

	Notas	*200X*	*200X-1*
B) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE INVERSIÓN			
6.– Pagos por inversiones (-). *a) Empresas del grupo y asociadas.* *b) Inmovilizado intangible.* *c) Inmovilizado material.* *d) Inversiones inmobiliarias.* *e) Otros activos financieros.* *f) Activos no corrientes mantenidos para venta.* *g) Otros activos.* *7.– Cobros por desinversiones (+).* *a) Empresas del grupo y asociadas.* *b) Inmovilizado intangible.* *c) Inmovilizado material.* *d) Inversiones inmobiliarias.* *e) Otros activos financieros.* *f) Activos no corrientes mantenidos para venta.* *g) Otros activos.* *8.– Flujos de efectivo de las actividades de inversión (7-6)*			

	Notas	200X	200X-1
C) FLUJOS DE EFECTIVO DE LAS ACTIVIDADES DE FINANCIACIÓN			
9.– Cobros y pagos por instrumentos de patrimonio. *a) Emisión de instrumentos de patrimonio (+).* *b) Amortización de instrumentos de patrimonio (-).* *c) Adquisición de instrumentos de patrimonio propio (-).* *d) Enajenación de instrumentos de patrimonio propio (+).* *e) Subvenciones, donaciones y legados recibidos (+).* *10.– Cobros y pagos por instrumentos de pasivo financiero.* *a) Emisión* *1. Obligaciones y otros valores negociables (+).* *2. Deudas con entidades de crédito (+).* *3. Deudas con empresas del grupo y asociadas (+).* *4. Otras deudas (+).* *b) Devolución y amortización de* *1. Obligaciones y otros valores negociables (-).* *2. Deudas con entidades de crédito (-).* *3. Deudas con empresas del grupo y asociadas (-).* *4. Otras deudas (-).* *11.– Pagos por dividendos y remuneraciones de otros instrumentos de patrimonio.* *a) Dividendos (-).* *b) Remuneración de otros instrumentos de patrimonio (-).* *12.– Flujos de efectivo de las actividades de financiación (+/-9+/-10-11)*			
D) EFECTO DE LAS VARIACIONES DE LOS TIPOS DE CAMBIO			
E) AUMENTO/DISMINUCIÓN NETA DEL EFECTIVO O EQUIVALENTES (+/-5+/-8+/-12+/-D)			
Efectivo o equivalentes al comienzo del ejercicio. *Efectivo o equivalentes al final del ejercicio.*			

V. ERANSKINA

MEMORIAREN EDUKIA

1.– Enpresaren jarduera.

Idatz-zati honetan azalduko da enpresaren helburu soziala eta nolako jarduera edo jarduerak egiten dituen. Zehazki:

1) Enpresaren egoitza eta forma juridikoa, eta jarduerak egiten dituen lekua, egoitza sozialean egiten ez baditu.

2) Enpresaren ustiapenaren deskripzio bat, jarduera nagusiak zein diren azalduz.

3) Sozietate-talde batekoa denean, Merkataritzako Kodeko 42. artikuluan ezarritako baldintzen arabera, sozietate gurasoaren egoitza Espainiako lurraldetik kanpora egon arren, sozietate-taldearen eta zuzeneko sozietate gurasoaren eta taldeko azken gurasoaren izena eman beharko da, eta gainera, sozietate horien egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak nongo Merkataritzako Erregistroan dauden gordailututa, kontu horien formulazio-data edota, bidezkoa bada, kontsolidatzeko obligazioetatik salbuesten duten zirkunstantziak.

4) Euroa ez den moneta funtzionalen bat dagoenean, garbi azaldu beharko da gorabehera hori, erabaki hori hartzeko kontuan izan diren irizpideak adieraziz.

2.– Urteko kontuak aurkezteko oinarriak.

1) Irudi fidela:

a) Enpresak esplizituki adierazi beharko du urteko kontuek enpresaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusten dutela eta diru-fluxuen egoera-orrian aurkeztutako fluxuak benetakoak direla.

b) Irudi fidela ematearren kontabilitate-arloko lege-xedapenen bat aplikatzen ez denean, horretarako egon diren arrazoi bereziak, aplikatu ez den lege-xedapena zein izan den, eta jokabide horrek informazioa aurkezten den ekitaldi bakoitzean enpresaren ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan izan duen eragin kualitatibo eta kuantitatiboa.

c) Irudi fidela erakusteko legeak agindutakoa aplikatzea aski ez denean, behar diren informazio osagarriak, memoriako zein puntutan dauden zehaztuz.

2) Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak.

3) Ziurgabetasuna baloratzeko eta zenbatesteko alderdi kritikoak.

a) Ohar bakoitzean adierazi beharrekoaz gain, idatzzati honetan azalduko dira etorkizunari buruzko funtsezko hipotesiak eta ekitaldi-itxieran ziurgabetasuna estimatzeko dauden datu esanguratsuak, datu horiek

ANEXO V

CONTENIDO DE LA MEMORIA

1.– Actividad de la empresa.

En este apartado se describirá el objeto social de la empresa y la actividad o actividades a que se dedique. En particular:

1) Domicilio y forma legal de la empresa, así como el lugar donde desarrolle las actividades, si fuese diferente de la sede social.

2) Una descripción de la naturaleza de la explotación de la empresa, así como de sus principales actividades.

3) En el caso de pertenecer a un grupo de sociedades, en los términos previstos en el artículo 42 del Código de Comercio, incluso cuando la sociedad dominante esté domiciliada fuera del territorio español, se informará sobre su nombre, así como el de la sociedad dominante directa y de la dominante última del grupo, la residencia de estas sociedades y el Registro Mercantil donde estén depositadas las cuentas anuales consolidadas, la fecha de formulación de las mismas o, si procediera, las circunstancias que eximan de la obligación de consolidar.

4) Cuando exista una moneda funcional distinta del euro, se pondrá claramente de manifiesto esta circunstancia, indicando los criterios tenidos en cuenta para su determinación.

2.– Bases de presentación de las cuentas anuales.

1) Imagen fiel:

a) La empresa deberá hacer una declaración explícita de que las cuentas anuales reflejan la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la empresa, así como de la veracidad de los flujos incorporados en el estado de flujos de efectivo.

b) Razones excepcionales por las que, para mostrar la imagen fiel, no se han aplicado disposiciones legales en materia contable, con indicación de la disposición legal no aplicada, e influencia cualitativa y cuantitativa para cada ejercicio para el que se presenta información, de tal proceder sobre el patrimonio, la situación financiera y los resultados de la empresa.

c) Informaciones complementarias, indicando su ubicación en la memoria, que resulte necesario incluir cuando la aplicación de las disposiciones legales no sea suficiente para mostrar la imagen fiel.

2) Principios contables no obligatorios aplicados.

3) Aspectos críticos de la valoración y estimación de la incertidumbre.

a) Sin perjuicio de lo indicado en cada nota específica, en este apartado se informará sobre los supuestos clave acerca del futuro, así como de otros datos relevantes sobre la estimación de la incertidumbre en la fecha

datorren ekitaldian aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa garrantzitsuak izateko arriskua erakusten badute. Aktibo eta pasibo horien izaerari buruzko informazioa eta itxiera-datan duten kontabilitate-balioa ere eman beharko da.

b) Kontabilitate-estimazioan egindako aldaketa garrantzitsu ororen izaera eta zenbatekoa zehaztu behar da, aldaketak uneko ekitaldia ukitzen badu edo etorkizuneko ekitaldiak uki baditzake. Etorkizuneko ekitaldietan izango duen eragina zenbatetsi ezin denean, ezintasun hori ere adieraziko da.

c) Zuzendaritzak ziurgabetasun handia ikusten badu, enpresak bere martxa normalean funtzionatzen jarraitu ahal izatea zalantzan jartzen duten gertaera edo baldintzen inguruan, idatz-zati honetan azaldu beharko du. Urteko kontuak ez badira prestatzen funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioari jarraituz, datu hori esplizituki ezagutarazi beharko da, kontuak prestatzeko erabili diren hipotesi alternatiboak azaldu beharko dira, eta funtzionamenduan dagoen enpresa moduan ez kontsideratzeko dauden arrazoiak zein diren esplikatu beharko da.

4) Informazioaren konparazioa.

Hurrengo idatz-zatietan kontabilitate-irizpideak aldatzeaz eta errore-zuzenketaz esaten denaz gain, informazio hau eman behar da:

a) Aurreko ekitaldiko balantzearen, galdu-irabazien kontuaren, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren eta diru-fluxuen egoera-orriaren egitura aldatzea justifikatzen duten aparteko arrazoiak.

b) Ekitaldiko kontuak aurreko ekitaldikoekin konparatzea eragozten duten arrazoien azalpena.

c) Aurreko ekitaldiko zenbatekoak konparagarri bihurtzeko egin diren egokitzapenen azalpena edo, bestela, ezin izan badira egokitu, egokitzapena eragotzi duten aparteko arrazoiak.

5) Partidak elkartzea.

Balantzean, galdu-irabazien kontuan, ondare garbiko aldaketen egoera-orrian edo diru-fluxuen egoera-orrian elkartuta aurkeztu diren partiden banakatzeari buruzko informazioa emango da.

Aurreko informazio hori eman beharrik ez da izango, banakatze hori memoriako beste idatz-zati batzuetan azaltzen bada.

6) Hainbat partidatan banatuta erregistratu diren elementuak.

Balantzeko bi partidatan edo gehiagotan banatuta erregistratuta dauden ondare-elementuen identifikazioa, elementuaren zenbateko osoa, zein partidatan banatuta dagoen eta partida bakoitzean duen zenbatekoa.

de cierre del ejercicio, siempre que lleven asociado un riesgo importante que pueda suponer cambios significativos en el valor de los activos o pasivos en el ejercicio siguiente. Respecto de tales activos y pasivos, se incluirá información sobre su naturaleza y su valor contable en la fecha de cierre.

b) Se indicará la naturaleza y el importe de cualquier cambio en una estimación contable que sea significativo y que afecte al ejercicio actual o que se espera que pueda afectar a los ejercicios futuros. Cuando sea impracticable realizar una estimación del efecto en ejercicios futuros, se revelará este hecho.

c) Cuando la dirección sea consciente de la existencia de incertidumbres importantes, relativas a eventos o condiciones que puedan aportar dudas significativas sobre la posibilidad de que la empresa siga funcionando normalmente, procederá a revelarlas en este apartado. En el caso de que las cuentas anuales no se elaboren bajo el principio de empresa en funcionamiento, tal hecho será objeto de revelación explícita, junto con las hipótesis alternativas sobre las que hayan sido elaboradas, así como las razones por las que la empresa no pueda ser considerada como una empresa en funcionamiento.

4) Comparación de la información.

Sin perjuicio de lo indicado en los apartados siguientes respecto a los cambios en criterios contables y corrección de errores, en este apartado se incorporará la siguiente información:

a) Razones excepcionales que justifican la modificación de la estructura del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo del ejercicio anterior.

b) Explicación de las causas que impiden la comparación de las cuentas anuales del ejercicio con las del precedente.

c) Explicación de la adaptación de los importes del ejercicio precedente para facilitar la comparación y, en caso contrario, las razones excepcionales que han hecho impracticable la reexpresión de las cifras comparativas.

5) Agrupación de partidas.

Se informará del desglose de las partidas que han sido objeto de agrupación en el balance, en la cuenta de pérdidas y ganancias, en el estado de cambios en el patrimonio neto o en el estado de flujos de efectivo.

No será necesario presentar la información anterior si dicha desagregación figura en otros apartados de la memoria.

6) Elementos recogidos en varias partidas.

Identificación de los elementos patrimoniales, con su importe, que estén registrados en dos o más partidas del balance, con indicación de éstas y del importe incluido en cada una de ellas.

7) Kontabilitate-irizpideen aldaketak.

Ekitaldian zehar kontabilitate-irizpideak aldatzeagatik egin diren doikuntzen esplikazio xehea. Bereziki, gai hauei buruzko informazioa eman beharko da:

a) Egindako aldaketaren izaera eta deskripzioa, eta aldaketak informazio fidagarriagoa eta garrantzitsuagoa zergatik ematen duen azaltzeko arrazoiak.

b) Zuzenketa zenbatekoa izan den urteko kontuak osatzen dituzten dokumentu guztietan, konparazioa egiteko aurkezten diren ekitaldietan aldaketak ukitu dituen partidetako bakoitzean, eta

c) Atzeraeraginez ezin bada aplikatu, ezintasun horren berri emango da, arrazoiak azalduz, eta kontabilitate-irizpidearen aldaketa noiztik aplikatu den zehaztuko da.

Irizpide-aldaketa arau berri bat aplikatu delako egin baldin bada, hori adierazi eta arauan esaten dena beteko da, etorkizuneko ekitaldietan izango duen eraginaren berri emanez.

Zati honetan ez da konparaziozko informaziorik eman beharko.

8) Errore-zuzenketa.

Ekitaldian errore-zuzenketagatik egin diren doikuntzen azalpen xehea. Bereziki, gai hauei buruzko informazioa eman beharko da:

a) Errorearen izaera eta zenbat eta zein ekitalditan egin zen.

b) Zuzenketa zenbatekoa izan den urteko kontuak osatzen dituzten dokumentu guztietan, konparazioa egiteko aurkezten diren ekitaldietan aldaketak ukitu dituen partidetako bakoitzean, eta

c) Atzeraeraginez ezin bada aplikatu, ezintasun horren berri emango da, arrazoiak azalduz, eta errorearen zuzenketa noiztik aplikatu den zehaztuko da.

Zati honetan ez da konparaziozko informaziorik eman beharko.

3.– Emaitzen aplikazioa.

1) Ekitaldiko emaitza aplikatzeko proposamenari buruzko informazioa, eskema honen arabera:

7) Cambios en criterios contables.

Explicación detallada de los ajustes por cambios en criterios contables realizados en el ejercicio. En particular, deberá suministrarse información sobre:

a) Naturaleza y descripción del cambio producido y las razones por las cuales el cambio permite una información más fiable y relevante.

b) Importe de la corrección para cada una de las partidas que correspondan de los documentos que integran las cuentas anuales, afectadas en cada uno de los ejercicios presentados a efectos comparativos, y

c) Si la aplicación retroactiva fuera impracticable, se informará sobre tal hecho, las circunstancias que lo explican y desde cuándo se ha aplicado el cambio en el criterio contable.

Cuando el cambio de criterio se deba a la aplicación de una nueva norma, se indicará y se estará a lo dispuesto en la misma, informando de su efecto sobre ejercicios futuros.

No será necesario incluir información comparativa en este apartado.

8) Corrección de errores.

Explicación detallada de los ajustes por corrección de errores realizados en el ejercicio. En particular, deberá suministrarse información sobre:

a) Naturaleza del error y el ejercicio o ejercicios en que se produjo.

b) Importe de la corrección para cada una de las partidas que correspondan de los documentos que integran las cuentas anuales afectadas en cada uno de los ejercicios presentados a efectos comparativos, y

c) Si la aplicación retroactiva fuera impracticable, se informará sobre tal hecho, las circunstancias que lo explican y desde cuándo se ha corregido el error.

No será necesario incluir información comparativa en este apartado.

3.– Aplicación de resultados.

1) Información sobre la propuesta de aplicación del resultado del ejercicio, de acuerdo con el siguiente es quema:

Banaketa-oinarria	Zenbatekoa
Galdu-irabazien kontuaren saldoa	
Gaineratikoa	
Borondatezko erreserbak	
Erabilera libreko bestelako erreserbak	
Guztira	

Aplikazioa	Zenbatekoa
Legezko erreserbara	
Merkataritza-fondoaren erreserbara	
Erreserba berezietara	
Borondatezko erreserbetara	
A _____	
Dibidenduetara	
A _____	
Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko	
Guztira	

Base de reparto	Importe
Saldo de la cuenta de pérdidas y ganancias	
Remanente	
Reservas voluntarias	
Otras reservas de libre disposición	
Total	

Aplicación	Importe
A reserva legal	
A reserva por fondo de comercio	
A reservas especiales	
A reservas voluntarias	
A _____	
A dividendos	
A _____	
A compensación de pérdidas de ejercicios anteriores	
Total	

2) Ekitaldian zehar konturako dibidenduak banatu badira, horien zenbatekoa adierazi beharko da eta aurreikuspenezko kontabilitateko egoera-orria ere erantsiko da, legeak agindutakoaren arabera, behar adinako likidezia badagoela erakusteko formulatu beharrekoa. Kontabilitateko egoera-orri horrek urtebeteko epea hartuko du, konturako dibidendua banatzea erabakitzen denetik aurrera.

3) Dibidenduak banatzeko mugak.

4.– Erregistratzeko eta baloratzeko arauak.

Ondorengo partidei aplikatutako kontabilitate-irizpideak adieraziko dira:

1) Ibilgetu ukiezina; kapitalizatzeko edo aktibatzeko, amortizatzeko eta narriaduragatik balio-zuzenketak egiteko erabili diren irizpideak zehaztuz.

Ibilgetu ukiezin baten balio-bizitza mugagabetzat kalifikatzera eraman duten zirkunstantzien justifikazioa.

Bereziki, xehetasun guztiarekin azaldu beharko da merkataritza-fondoaren eta balio-bizitza mugagabea duten gainerako ibilgetu ukiezinen balio berreskuragarria kalkulatzeko erabili den balorazio-irizpidea.

2) Ibilgetu materiala; erabili diren irizpideak zehaztuz: amortizatzeko, narriaduragatik balio-zuzenketak egiteko eta atzera itzultzeko edo lehengoratzeko, gastuak kapitalizatzeko, hau da, gastu finantzarioak, ibilgetua zabaldu, modernizatu eta hobetzeko kostuak, eraisteko edo erretiratzeko kostuak, kokalekua birgaitzeko edo

2) En el caso de distribución de dividendos a cuenta en el ejercicio, se deberá indicar el importe de los mismos e incorporar el estado contable previsional formulado preceptivamente para poner de manifiesto la existencia de liquidez suficiente. Dicho estado contable deberá abarcar un periodo de un año desde que se acuerde la distribución del dividendo a cuenta.

3) Limitaciones para la distribución de dividen dos.

4.– Normas de registro y valoración.

Se indicarán los criterios contables aplica dos en relación con las siguientes partidas:

1) Inmovilizado intangible; indicando los criterios utilizados de capitalización o activación, amortización y correcciones valorativas por deterioro.

Justificación de las circunstancias que han llevado a calificar como indefinida la vida útil de un inmovilizado intangible.

En particular, deberá indicarse de forma detallada el criterio de valoración seguido para calcular el valor recuperable del fondo de comercio, así como del resto de inmovilizados intangibles con vida útil indefinida.

2) Inmovilizado material; indicando los criterios sobre amortización, correcciones valorativas por deterioro y reversión de las mismas, capitalización de gastos financieros, costes de ampliación, modernización y mejoras, costes de desmantelamiento o retiro, así como los costes de rehabilitación del lugar donde se asiente un activo y

egokitzeko kostuak kapitalizatzeko eta enpresak bere ibilgeturako egindako lanen kostua erabakitzeko erabili diren irizpideak.

3) Lurrak eta eraikuntzak ondasun higiezinetako inbertsio moduan kalifikatzeko erabilitako irizpidea azalduko da, aurreko idatz-zatian adierazitako irizpideak zehaztuz.

4) Errentamenduak; finantza-errentamenduko kontratuak eta antzeko eragiketak kontabilizatzeko irizpideak adieraziz.

5) Trukaketak; jarraitutako irizpidea azalduz eta aplikazioa justifikatuz, bereziki, trukaketa komertzial moduan kalifikatzeko izan diren inguruabarrak eta arrazoiak.

6) Finantza-tresnak; hauek azalduko dira:

a) Kategoria bakoitzeko aktibo finantzarioak eta pasibo finantzarioak kalifikatzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak eta, halaber, arrazoizko balioaren aldaketak kontabilizatzekoak; bereziki, enpresak jaulkitako baloreak, erabilitako tresna juridikoaren arabera printzipioz ondare-tresna moduan kalifikatu behar zirenak, zergatik kalifikatu diren pasibo finantzario moduan.

b) Hasieran galdu-irabazien bitartez arrazoizko balioan baloratutako aktibo eta pasibo finantzario bezala sailkatutako aktibo eta pasibo finantzarioen izaera, eta gainera, sailkapen hori egiteko aplikatutako irizpideak eta enpresak finantza-tresnak erregistratzeko eta baloratzeko arauan azaltzen diren betebeharrak bete dituela esaten duen esplikazioa.

c) Aktibo finantzarioak narriatu direla erakusten duten ebidentziak badaudela erabakitzeko, balio-zuzenketak eta atzera-itzultzeak edo lehengoratzeak erregistratzeko eta aktibo finantzario narriatuei baja emateko aplikatu diren irizpideak. Bereziki, zordun komertzialen eta kobratzeko bestelako kontuen balio-zuzenketak kalkulatzeko erabilitako irizpideak azpimarratu beharko dira. Halaber, birnegoziatu izan ez balira mugaeguneratuta edo narriatuta egongo liratekeen aktibo finantzario birnegoziatuei aplikatutako kontabilitate-irizpideak zehaztu beharko dira.

d) Aktibo finantzarioen eta pasibo finantzarioen baja erregistratzeko erabilitako irizpideak.

e) Finantza-tresna hibridoak; osagai bakoitza bereizita baloratzeko erabili diren irizpideak zein izan diren azalduko da, oinarritzat hartuz bakoitzaren ezaugarriak eta arrisku ekonomikoak, edota, osagaiak bereizi ezin badira, bereizi ezina azalduko da. Gainera, erabilitako balorazio-irizpideak azalduko dira, erreferentzia berezia eginez narriaduragatik egindako balio-zuzenketei.

f) Finantza-tresna konposatuak; pasibo finantzario bezala kalifikatu behar den osagaia zenbatesteko jarraitu den balorazio-irizpidea azaldu behar da.

los criterios sobre la determinación del coste de los trabajos efectuados por la empresa para su inmovilizado.

3) Se señalará el criterio para calificar los terrenos y construcciones como inversiones inmobiliarias, especificando para éstas los criterios señalados en el apartado anterior.

4) Arrendamientos; indicando los criterios de contabilización de contratos de arrendamiento financiero y otras operaciones de naturaleza similar.

5) Permutas; indicando el criterio seguido y la justificación de su aplicación, en particular, las circunstancias que han llevado a calificar a una permuta de carácter comercial.

6) Instrumentos financieros; se indicará:

a) Criterios empleados para la calificación y valoración de las diferentes categorías de activos financieros y pasivos financieros, así como para el reconocimiento de cambios de valor razonable; en particular, las razones por las que los valores emitidos por la empresa que, de acuerdo con el instrumento jurídico empleado, en principio debieran haberse clasificado como instrumentos de patrimonio, han sido contabilizados como pasivos financieros.

b) La naturaleza de los activos financieros y pasivos financieros designados inicialmente como a valor razonable con cambios en la cuenta de pérdidas y ganancias, así como los criterios aplicados en dicha designación y una explicación de cómo la empresa ha cumplido con los requerimientos señalados en la norma de registro y valoración relativa a instrumentos financieros.

c) Los criterios aplicados para determinar la existencia de evidencia objetiva de deterioro, así como el registro de la corrección de valor y su reversión y la baja definitiva de activos financieros deteriorados. En particular, se destacarán los criterios utilizados para calcular las correcciones valorativas relativas a los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar. Asimismo, se indicarán los criterios contables aplicados a los activos financieros cuyas condiciones hayan sido renegociadas y que, de otro modo, estarían vencidos o deteriorados.

d) Criterios empleados para el registro de la baja de activos financieros y pasivos financieros.

e) Instrumentos financieros híbridos; indicando los criterios que se hayan seguido para valorar de forma separada los instrumentos que los integren, sobre la base de sus características y riesgos económicos o, en su caso, la imposibilidad de efectuar dicha separación. Asimismo, se detallarán los criterios de valoración seguidos con especial referencia a las correcciones valorativas por deterioro.

f) Instrumentos financieros compuestos; deberá indicarse el criterio de valoración seguido para cuantificar el componente de estos instrumentos que deba calificarse como pasivo financiero.

g) Berme finantzarioko kontratuak; bai hasierako balorazioan eta bai gerokoan jarraitutako irizpidea.

h) Taldeko enpresetan, talde anitzekoetan eta elkartuetan egindako inbertsioak; inbertsio horien balorazioa egiteko baliatutako irizpideen berri emango da eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketak erregistratzeko aplikatu den irizpidea azalduko da.

i) Kategoria bakoitzeko finantza-tresnetatik sortutako sarrerak eta gastuak erabakitzeko erabilitako irizpideak: interesak, primak edo deskontuak, dibidenduak, etab.

j) Enpresaren esku dauden ondare-tresna propioak, baloratzeko eta erregistratzeko erabilitako irizpideak adieraziz.

7) Kontabilitate-estaldurak; enpresak estaldura-eragiketetan aplikatutako balorazio-irizpideak adieraziko dira, arrazoizko balioen estaldurak, diru-fluxuen estaldurak eta atzerriko negozioetan egindako inbertsio garbien estaldurak bereziz, eta halaber, eteten direnean, etenduraren kontabilitate-ondoreak erregistratzeko aplikatutako balorazio-irizpideak, eta zergatik eten diren.

8) Izakinak; balorazio-irizpideak adierazita, batez, ere, narriaduragatik egindako balio-zuzenketei eta gastu finantzarioen kapitalizazioari buruzkoak.

9) Atzerri-monetan egindako transakzioak, hauek azalduz:

a) Atzerri-monetan egindako transakzioak baloratzeko eta kanbio-diferentziak egozteko irizpideak.

b) Moneta funtzionala aldatu bada, azaldu egin beharko da, eta baita aldaketa egiteko arrazoia ere.

c) Urteko kontuetako elementu batzuk orain edo jatorrian atzerri-monetan baloratutakoak direnean, elementu horiek eurotara bihurtzeko kanbio-tasa kalkulatzeko erabili den prozedura azalduko da.

d) Aurkezpen-monetara bihurtzeko erabili den irizpidea.

10) Mozkinen gaineko zergak; zerga geroratuen aktiboak eta pasiboak erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideen azalpenarekin.

11) Sarrerak eta gastuak; aplikatu diren irizpide orokorrak adieraziz. Bereziki, enpresak emandako zerbitzuei buruz, sarrerak erabakitzeko erabilitako irizpideak adieraziko dira; zehazki, zerbitzu-ematean eginda dagoen ehunekoa erabakitzeko metodoak azalduko dira eta metodo horiek ezin izan badira aplikatu, ezintasun horren berri emango da.

12) Hornidurak eta kontingentziak; balorazio-irizpidea azalduko da, eta, horrelakorik dagoenean, obli-

g) Contratos de garantías financieras; indicando el criterio seguido tanto en la valoración inicial como posterior.

h) Inversiones en empresas del grupo, multigrupo y asociadas; se informará sobre el criterio seguido en la valoración de estas inversiones, así como el aplicado para registrar las correcciones valorativas por deterioro.

i) Los criterios empleados en la determinación de los ingresos o gastos procedentes de las distintas categorías de instrumentos financieros: intereses, primas o descuentos, dividendos, etc.

j) Instrumentos de patrimonio propio en poder de la empresa; indicando los criterios de valoración y registro empleados.

7) Coberturas contables; indicando los criterios de valoración aplicados por la empresa en sus operaciones de cobertura, distinguiendo entre coberturas de valor razonable, de flujos de efectivo y de inversiones netas en negocios en el extranjero, así como los criterios de valoración aplicados para el registro de los efectos contables de su interrupción y los motivos que la han originado.

8) Existencias; indicando los criterios de valoración y, en particular, precisando los seguidos sobre correcciones valorativas por deterioro y capitalización de gastos financieros.

9) Transacciones en moneda extranjera; indicando:

a) Criterios de valoración de las transacciones en moneda extranjera y criterios de imputación de las diferencias de cambio.

b) Cuando se haya producido un cambio en la moneda funcional, se pondrá de manifiesto, así como la razón de dicho cambio.

c) Para los elementos contenidos en las cuentas anuales que en la actualidad o en su origen hubieran sido expresados en moneda extranjera, se indicará el procedimiento empleado para calcular el tipo de cambio a euros.

d) Criterio empleado para la conversión a la moneda de presentación.

10) Impuestos sobre beneficios; indicando los criterios utilizados para el registro y valoración de activos y pasivos por impuesto diferido.

11) Ingresos y gastos; indicando los criterios generales aplicados. En particular, en relación con las prestaciones de servicios realizadas por la empresa se indicarán los criterios utilizados para la determinación de los ingresos; en concreto, se señalarán los métodos empleados para determinar el porcentaje de realización en la prestación de servicios y se informará en caso de que su aplicación hubiera sido impracticable.

12) Provisiones y contingencias; indicando el criterio de valoración, así como, en su caso, el tratamien-

gazioa likidatzen denean hirugarren batengandik jasotzekoak diren konpentsazioen tratamendua. Bereziki, hornidurei dagokienez, arrisku bakoitza zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoaren azalpen orokorra eman beharko da.

13) Ingurumen-izaerako ondare-elementuak, azalduz:

a) Ingurumen-helburuetarako xedatutako zenbatekoak baloratzeko eta, halaber, emaitzetara egozteko irizpideak. Bereziki, zenbateko horiek ekitaldiko gastu bezala edo dagokion aktiboaren balio handiago bezala hartzeko jarraitu den irizpidea azalduko da.

b) Ingurumen-inpaktuaren ondoriozko hornidurak zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoaren azalpena.

14) Pertsonal-gastuak erregistratzeko eta baloratzeko erabili diren irizpideak, pentsioen konpromisoei dagozkienak bereziki.

15) Akzioetan oinarritutako ordainketak, kontabilizatzeko erabili diren irizpideak azalduz.

16) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak; sailkatzeko eta, hala dagokienean, emaitzetara egozteko erabili den irizpidea adieraziz.

17) Negozio-konbinazioak, erregistratzeko eta baloratzeko erabilitako irizpideak azalduz.

18) Baterako negozioak; partaide den baterako negozioari dagozkion saldoak urteko kontuetan sartzeko erabili diren irizpideak adieraziz.

19) Loturadun alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak.

20) Saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteak; aktibo edo elementu-multzo horiek saltzeko mantendutakotzat sailkatzeko eta baloratzeko erabili diren irizpideak azalduko dira, pasibo elkartuak ere bertan sartuz.

21) Etendako eragiketak; jarduera bat etendakotzat identifikatzeko eta sailkatzeko irizpideak, eta horrek sortzen dituen sarrerak eta gastuak.

5.– Ibilgetu materiala.

1) Epigrafe honetan sartutako balantzeko partida bakoitzak ekitaldian izan duen mugimenduaren analisia, bakoitzaren amortizazio metatua eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak, ondorengoa azalduz:

a) Hasierako saldoa.

b) Sarrerak edo zuzkidurak, negozio-konbinazio bidez egindako eskuratzeak eta diruaz bestelako ekarpenak zehaztuz, eta baita zabalkuntza edo hobekuntzei dagozkienak ere.

c) Narriaduragatik egindako balio-zuzenketen atzera-itzultzea.

d) Beste partida batzuetako transferentzia edo traspasoengatik izandako gehikuntzak/gutxitzeak; bereziki,

to de las compensaciones a recibir de un tercero en el momento de liquidar la obligación. En particular, en relación con las provisiones deberá realizarse una descripción general del método de estimación y cálculo de cada uno de los riesgos.

13) Elementos patrimoniales de naturaleza medioambiental, indicando:

a) Criterios de valoración, así como de imputación a resultados de los importes destinados a los fines medioambientales. En particular, se indicará el criterio seguido para considerar estos importes como gastos del ejercicio o como mayor valor del activo correspondiente.

b) Descripción del método de estimación y cálculo de las provisiones derivadas del impacto medioambiental.

14) Criterios empleados para el registro y valoración de los gastos de personal; en particular, el referido a compromisos por pensiones.

15) Pagos basados en acciones; indicando los criterios empleados para su contabilización.

16) Subvenciones, donaciones y legados; indicando el criterio empleado para su clasificación y, en su caso, su imputación a resultados.

17) Combinaciones de negocios; indicando los criterios de registro y valoración empleados.

18) Negocios conjuntos; indicando los criterios seguidos por la empresa para integrar en sus cuentas anuales los saldos correspondientes al negocio conjunto en que participe.

19) Criterios empleados en transacciones entre partes vinculadas.

20) Activos no corrientes mantenidos para la venta; se indicarán los criterios seguidos para calificar y valorar dichos activos o grupos de elementos como mantenidos para la venta, incluyendo los pasivos asociados.

21) Operaciones interrumpidas; criterios para identificar y calificar una actividad como interrumpida, así como los ingresos y gastos que originan.

5.– Inmovilizado material.

1) Análisis del movimiento durante el ejercicio de cada partida del balance incluida en este epígrafe y de sus correspondientes amortizaciones acumuladas y correcciones valorativas por deterioro acumuladas; indicando lo siguiente:

a) Saldo inicial.

b) Entradas o dotaciones, especificando las adquisiciones realizadas mediante combinaciones de negocios y las aportaciones no dinerarias, así como las que se deban a ampliaciones o mejoras.

c) Reversión de correcciones valorativas por deterioro.

d) Aumentos/disminuciones por transferencias o traspasos de otras partidas; en particular a activos no

saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteetara edo etendako eragiketetara egindakoak.

e) Irteerak, bajak edo gutxitzeak.

f) Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz.

g) Amortizazioak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz.

h) Amaierako saldoa.

2) Datu hauei buruzko informazioa:

a) Aktiboen balio handiago bezala sartutako eraisteko, erretiratzeko edo birgaitzeko kostu estimatuak, balorazioa egiteko kontuan izan diren zirkunstantziak zehaztuz.

b) Elementu mota bakoitzerako erabilitako balio-bizitzak edo amortizazio-koefizienteak, eta erabilitako amortizazio-metodoak, epigrafe honetako elementu garrantzitsu bakoitzaren ekitaldiko amortizazioari eta amortizazio metatuari buruzko informazioa emanez.

c) Estimazioetan egindako aldaketen berri eman beharko da, uneko ekitaldian edo etorkizunekoetan eragin esanguratsua baldin badute, eta hondar-balioak, eraiste, erretiratze edo birgaitzeko kostu estimatuak, balio-bizitzak eta amortizazio-metodoak ukitzen badituzte.

d) Taldeko enpresengandik eta elkartuengandik eskuratutako ibilgetu materialeko inbertsioen ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.

e) Espainiako lurraldetik kanpora kokatutako ibilgetu materialeko inbertsioen ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.

f) Ekitaldian kapitalizatutako finantza-gastuen zenbatekoa, eta hori kalkulatzeko erabili diren irizpideak.

g) Ekitaldian zehar ibilgetu material zehatz batean narriaduragatik balio-zuzenketa esanguratsuren bat kontabilizatu edo atzera itzuli bada, balio-zuzenketa bakoitzeko adierazi beharko da:

– Ibilgetu materialaren izaera.

– Zenbatekoa, eta narriaduragatiko galera kontabilizatzera edo atzera itzultzera eraman duten gertaerak eta zirkunstantziak.

– Arrazoizko balioa (halakorik dagoenean, salmentakostuak kenduta) zehazteko erabilitako irizpidea, eta

– Erabilera-balioaren metodoa erabiltzen bada, uneko estimazioetan eta aurrekoetan erabilitako eguneratze-tasa edo tasak adieraziko dira, diru-fluxuen proiekzioak oinarritzeko erabili diren hipotesi gakoen deskripzioa egingo da eta esango da nola zehaztu diren balioak, diru-fluxuen proiekzioak hartzen duen epealdia eta diru-fluxuen hazkunde-tasa, bosgarren urtetik aurrera.

corrientes mantenidos para la venta u operaciones interrumpidas.

e) Salidas, bajas o reducciones.

f) Correcciones valorativas por deterioro, diferenciando las reconocidas en el ejercicio, de las acumuladas.

g) Amortizaciones, diferenciando las reconocidas en el ejercicio, de las acumuladas.

h) Saldo final.

2) Información sobre:

a) Costes estimados de desmantelamiento, retiro o rehabilitación, incluidos como mayor valor de los activos, especificando las circunstancias que se han tenido en cuenta para su valoración.

b) Vidas útiles o coeficientes de amortización utilizados por clases de elementos, así como los métodos de amortización empleados, informando de la amortización del ejercicio y la acumulada que corresponda a cada elemento significativo de este epígrafe.

c) Siempre que tenga incidencia significativa en el ejercicio presente o en ejercicios futuros, se informará de los cambios de estimación que afecten a valores residuales, a los costes estimados de desmantelamiento, retiro o rehabilitación, vidas útiles y métodos de amortización.

d) Características de las inversiones en in movilizado material adquiridas a empresas del grupo y asociadas, con indicación de su valor contable, amortización y correcciones valorativas por deterioro acumuladas.

e) Características de las inversiones en in movilizado material situadas fuera del territorio español, con indicación de su valor contable, amortización y correcciones valorativas por deterioro acumuladas.

f) Importe de los gastos financieros capitalizados en el ejercicio, así como los criterios seguidos para su determinación.

g) Para cada corrección valorativa por deterioro de cuantía significativa, reconocida o revertida durante el ejercicio para un inmovilizado material individual, se indicará:

– Naturaleza del inmovilizado material.

– Importe, sucesos y circunstancias que han llevado al reconocimiento y reversión de la pérdida por deterioro.

– Criterio empleado para determinar el valor razonable menos los costes de venta, en su caso, y

– Si el método empleado fuera el valor en uso, se señalará el tipo o tipos de actualización utilizados en las estimaciones actuales y en las anteriores, una descripción de las hipótesis clave sobre las que se han basado las proyecciones de flujos de efectivo y de cómo se han determinado sus valores, el periodo que abarca la proyección de los flujos de efectivo y la tasa de crecimiento de éstos a partir del quinto año.

h) Aurreko letran esandako informazioan sartu ez diren gainerako narriaduraren galera eta atzera-itzultze agregatuei dagokienez, zein ibilgetu mota nagusitan egin diren azalduko da, eta zein izan diren narriaduragatik egindako balio-zuzenketa horiek kontabilizatu eta atzera itzultzera behartu duten gertaera eta zirkunstantzia nagusiak.

i) Balio-narriadura izan duten edo galdu edo erretiratu diren ibilgetu materialeko elementuengatik hirugarren batzuek eman dituzten eta ekitaldiko emaitzan sartu diren konpentsazioen zenbatekoari buruzko informazioa emango da.

j) Ibilgetu materiala unitate diru-sortzaile batean sartuta badago, narriaduragatik izandako galeraren informazioa emango da 7. oharreko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

k) Zuzenean ustiapenarekin lotuta ez dagoen ibilgetu materialaren ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.

l) Erabat amortizatuta egon arren, oraindik erabiltzen diren ondasunen zenbatekoa eta ezaugarriak, bereizketa eginez eraikuntzen eta gainerako elementuen artean.

m) Berme eta errebertsioei lotutako ondasunak, eta baita titulartasun-murrizketarik dagoen eta zenbatekoak diren ere.

n) Ibilgetu materialarekin erlazionatuta hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak, aktibo horien zenbatekoa ere adieraziz.

o) Erosteko konpromiso irmoak eta finantzaketa-iturri aurreikusgarriak; baita saltzeko konpromiso irmoak ere.

p) Ibilgetu materialeko ondasunetan eragina duten izaera substantiboko gainerako gorabeherak, hala nola: errentamenduak, aseguruak, auziak, enbargoak eta antzeko egoerak.

q) Finantza-errentamenduak eta ibilgetu materialeko ondasunen gaineko antzeko beste eragiketa guztiak. Memoriako beste leku batzuetan eskatzen den bestelako informazioari kalterik egin gabe.

r) Ondasun higiezinetan, bereizita adieraziko dira eraikuntzaren eta lurraren balioa.

s) Ekitaldian ibilgetu materialeko elementuak besterentzetik edo beste era batera xedatzetik sortutako emaitzak.

6.– Ondasun higiezinetako inbertsioak.

Aurreko oharrean eskatutako informazioaz gain, ondasun higiezinetako inbertsio bezala sailkatutako ondasun higiezinak deskribatuko dira, informazio hau emanez:

1) Ondasun higiezinetako inbertsio motak eta emango zaien xedea.

h) Respecto a las pérdidas y reversiones por deterioro agregadas para las que no se revela la información señalada en la letra anterior, las principales clases de inmovilizados afectados por las pérdidas y reversiones por deterioro y los principales sucesos y circunstancias que han llevado al reconocimiento y la reversión de tales correcciones valorativas por deterioro.

i) Se informará del importe de las compensaciones de terceros que se incluyan en el resultado del ejercicio por elementos de inmovilizado material cuyo valor se hubiera deteriorado, se hubieran perdido o se hubieran retirado.

j) Si el inmovilizado material está incluido en una unidad generadora de efectivo, la información de la pérdida por deterioro se dará de acuerdo con lo establecido en el apartado 2 de la nota 7.

k) Características del inmovilizado material no afecto directamente a la explotación, indicando su valor contable, amortización y correcciones valorativas por deterioro acumuladas.

l) Importe y características de los bienes totalmente amortizados en uso, distinguiendo entre construcciones y resto de elementos.

m) Bienes afectos a garantías y reversión, así como la existencia y los importes de restricciones a la titularidad.

n) Subvenciones, donaciones y legados recibidos relacionados con el inmovilizado material, indicando también el importe de dichos activos.

o) Compromisos firmes de compra y fuentes previsibles de financiación, así como los compromisos firmes de venta.

p) Cualquier otra circunstancia de carácter sustantivo que afecte a bienes del inmovilizado material tal como: arrendamientos, seguros, litigios, embargos y situaciones análogas.

q) Arrendamientos financieros y otras operaciones de naturaleza similar sobre bienes del inmovilizado material. Sin perjuicio de la información requerida en otras partes de la memoria.

r) En el caso de inmuebles, se indicará de forma separada el valor de la construcción y del terreno.

s) El resultado del ejercicio derivado de la enajenación o disposición por otros medios de elementos del inmovilizado material.

6.– Inversiones inmobiliarias.

Además de la información requerida en la nota anterior, se describirán los inmuebles clasificados como inversiones inmobiliarias, y se informará de:

1) Tipos de inversiones inmobiliarias y destino que se dé a las mismas.

2) Inbertsio horietatik etorritako sarrerak eta ustiapen-gastuak; bereizi egingo dira sarrerak sortzen dituzten eta ez dituzten inbertsioak.

3) Murrizketarik badago ondasun higiezinetako inbertsioak egiteko, horietatik sortutako sarrerak edo besterentzean edo beste xedatzean lortutako baliabideak kobratzeko, murrizketa horien azalpena eta zenbatekoa, eta

4) Ondasun higiezinetako inbertsioak eskuratzeko, eraikitzeko edo garatzeko edota konponketak, mantentzea eta hobekuntzak egiteko dauden kontratu-obligazioak.

7.– Ibilgetu ukiezina.

7.1.– Orokorra.

Merkataritza-fondoaren inguruko informazioari dagokionez izan ezik, horri buruz ohar honetako 2. idatz-zatian esaten den informazioa eman beharko baita, honako informazio hau sartu behar da:

1) Epigrafe honetan sartutako balantzeko partida bakoitzak ekitaldian izan duen mugimenduaren analisia, bakoitzaren amortizazio metatua eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak, ondorengoa azalduz:

a) Hasierako saldoa.

b) Sarrerak edo zuzkidurak, zehaztuz, barnean sortutakoak eta negozio-konbinazioen bidez eskuratutakoak eta diruaz bestelako ekarpenak.

c) Narriaduragatik egindako balio-zuzenketen atzera-itzultzea.

d) Beste partida batzuetako transferentzia edo traspasoengatik izandako gehikuntzak/gutxitzeak; bereziki, saltzeko mantendutako aktibo ez-korronteetara egindakoak.

e) Irteerak, bajak edo gutxitzeak.

f) Narriaduragatik egindako balio-zuzenketak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz.

g) Amortizazioak, ekitaldian kontabilizatuak eta metatuak bereiziz.

h) Amaierako saldoa.

2) Datu hauei buruzko informazioa:

a) Berme eta errebertsioei lotutako aktiboak, eta baita titulartasun-murrizketarik dagoen eta zenbatekoak diren ere.

b) Elementu mota bakoitzerako erabilitako balio-bizitzak edo amortizazio-koefizienteak, eta erabilitako amortizazio-metodoak, epigrafe honetako elementu garrantzitsu bakoitzaren ekitaldiko amortizazioari eta amortizazio metatuari buruzko informazioa emanez.

c) Estimazioetan egindako aldaketen berri eman beharko da, uneko ekitaldian edo etorkizunekoetan eragin

2) Ingresos provenientes de estas inversiones así como los gastos para su explotación; se diferenciarán las inversiones que generan ingresos de aquéllas que no lo hacen.

3) La existencia e importe de las restricciones a la realización de inversiones inmobiliarias, al cobro de los ingresos derivados de las mismas o de los recursos obtenidos por su enajenación o disposición por otros medios, y

4) Obligaciones contractuales para adquisición, construcción o desarrollo de inversiones inmobiliarias o para reparaciones, mantenimiento o mejoras.

7.– Inmovilizado intangible.

7.1.– General.

Salvo en relación con el fondo de comercio, respecto al cual deberá suministrarse la información referida en el apartado 2 de esta nota, se incluirá la siguiente información:

1) Análisis del movimiento durante el ejercicio de cada partida del balance incluida en este epígrafe y de sus correspondientes amortizaciones acumuladas y correcciones valorativas por deterioro de valor acumuladas; indicando lo siguiente:

a) Saldo inicial.

b) Entradas o dotaciones, especificando los activos generados internamente y los adquiridos mediante combinaciones de negocios y aportaciones no dinerarias.

c) Reversión de correcciones valorativas por deterioro.

d) Aumentos/disminuciones por transferencias o traspaso de otra partida, en particular a activos no corrientes mantenidos para la venta.

e) Salidas, bajas o reducciones.

f) Correcciones valorativas por deterioro, diferenciando las reconocidas en el ejercicio, de las acumuladas.

g) Amortizaciones, diferenciando las reconocidas en el ejercicio, de las acumuladas.

h) Saldo final.

2) Información sobre:

a) Activos afectos a garantías y reversión, así como la existencia y los importes de restricciones a la titularidad.

b) Vidas útiles o coeficientes de amortización utilizados por clases de elementos, así como los métodos de amortización empleados, informando de la amortización del ejercicio y la acumulada que corresponda a cada elemento significativo de este epígrafe.

c) Siempre que tenga incidencia significativa en el ejercicio presente o en ejercicios futuros, se informará

esanguratsua baldin badute, eta hondar-balioak, baliobizitzak eta amortizazio-metodoak ukitzen badituzte.

d) Taldeko enpresengandik eta elkartuengandik eskuratutako ibilgetu ukiezineko inbertsioen ezaugarriak, garbi azalduz kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak.

e) Ibilgetu ukiezineko inbertsioen ezaugarriak, horien eskubideak Espainiako lurraldetik kanpora egikaritzeko modukoak direnean edo Espainiako lurraldetik kanpora kokatutako inbertsioekin erlazionatuta daudenean, inbertsio horien kontabilitate-balioa, amortizazioa eta narriaduragatik egindako balio-zuzenketa metatuak adieraziz.

f) Ekitaldian kapitalizatutako finantza-gastuen zenbatekoa, eta hori kalkulatzeko erabili diren irizpideak.

g) Ekitaldian zehar ibilgetu ukiezin zehatz batean narriaduragatik balio-zuzenketa esanguratsuren bat kontabilizatu edo atzera itzuli bada, balio-zuzenketa bakoitzeko adierazi beharko da:

– Ibilgetu ukiezinaren izaera.

– Zenbatekoa, eta narriaduragatiko galera kontabilizatzera edo atzera itzultzera eraman duten gertaerak eta zirkunstantziak.

– Arrazoizko balioa (halakorik dagoenean, salmentakostuak kenduta) zehazteko erabilitako irizpidea, eta

– Erabilera-balioaren metodoa erabiltzen bada, uneko estimazioetan eta aurrekoetan erabilitako eguneratze-tasa edo tasak adieraziko dira, diru-fluxuen proiekzioak oinarritzeko erabili diren hipotesi gakoen deskripzioa egingo da eta esango da nola zehaztu diren balioak, diru-fluxuen proiekzioak hartzen duen epealdia eta diru-fluxuen hazkunde-tasa, bosgarren urtetik aurrera.

h) Aurreko letran esandako informazioan sartu ez diren gainerako narriaduraren galera eta atzera-itzultze agregatuei dagokienez, zein ibilgetu mota nagusitan egin diren azalduko da, eta zein izan diren narriaduragatik egindako balio-zuzenketa horiek kontabilizatu eta atzera itzultzera behartu duten gertaera eta zirkunstantzia nagusiak.

i) Ibilgetu ukiezina unitate diru-sortzaile batean sartuta badago, narriaduragatik izandako galeraren informazioa emango da ohar honetako 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

